

# **GMSM-KO BARNEKO INFORMAZIO- KANALAREN FUNTZIONAMENDU- ARAUAK**

# Aurkibidea

---

01   Sarrera	3
02   Zer komunikatu daiteke informaziorako barneko kanalaren bidez?	4
03   Zein gatazka baztertzeko dira espresuki?	5
04   Nork erabil dezake informaziorako barneko kanala?	6
05   Nola jakinarazi daiteke ustezko arau-hauste bat?	7
06   Komunikazio anonimorik egin daiteke? Zer baldintza eskatzen dira balizko arau-hauste bati buruzko informazioaren komunikazioa egiteko?	8
07   Jasotako informazioak kudeatzeko prozeduraren alderdi nagusiak	9
08   Amaitzen	11

# 01

## Sarrera

---

**GMSM MEDIOAMBIENTE S.A.**-k (aurrerantzean, **GMSM**), Betetze Sistema bat du, batez ere delituak prebenitzeko. Horren funtsezko alderdia da salaketen kanala edo informazioaren barne-kanala, gure jarduera gauzatzean gerta daitezkeen arau-hauste penalak edo/eta Jokabide Kodearen balizko ez-betetzeak modu seguruan – beste gorabehera batzuen artean – jakinarazteko.


2023an onartu eta indarrean sartu da otsailaren 20ko **2/2023 Legea**, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena (aurrerantzean, 2/2023 Legea). Arau hori, hasiera batean, Europar Batasunaren 2019ko Zuzentarau bat zuzenbide nazionalera ekartzeko zena, hark aurreikusitakoa baino askoz harago joan da, hainbat alderditan, sektore publikoko zein pribatuko erakundeei eragiten dieten aldaketa eta eskakizun ugari sartuz.

Ezin bestela izan, **GMSMk**, kanpoko aholkularitza espezializatura joz eta langileen legezko ordezkartzari kontsulta egin ondoren, kanal eta prozedura bat ezarri ditu, aipatutako 2/2023 Legearen ondoriozko betebeharrak egokituta.

Informazio Sistema bat eta lehen mailako informaziorako barneko kanal bat ditugu. Jarraian, aipatutako kanalaren eta jasotako informazioa kudeatzeko prozeduraren ohar garrantzitsuenak laburbilduko ditugu.

# 02

## Zer komunikatu daiteke informaziorako barneko kanalaren bidez?



Ekintza edo ez-egite hauetako bati edo batzuei (aurrerantzean, ustezko "arau-haustek") buruzko informazioa (**GMSMn** edo horrekin lanbide jarduera baten esparruan zilegi den moduan lortutakoa) komunikatu daiteke:

### 01

Europar Batasunaren Zuzenbidearen urraketa izan daitekeen edozein ekintza edo ez-egite, baldin eta: Europar Batasunaren egintzen aplikazio-eremuan sartzen bada; Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badie; edo barne-merkatuan eragiten badu.

### 02

Jokabide Kodea ez betetzea, baita Betetze Sistema osatzen duten gainerako protokoloak edo barne-arauak ustez ez betetzea ere.

### 03

Edozein arau-hauste penal.

### 04

Edozein arau-hauste administratibo larri edo oso larri, batez ere (baina ez bakarrik) Estatuko, foruko, tokiko edo autonomiako ogasunei edo Gizarte Segurantzari eragin diezaieketenak.

### 05

Laneko segurtasun eta osasunaren arloko edozein arau-hauste larri edo oso larri. Jazarpentzat har daitezkeen egoerak barne.


# 03

## Zein gatazka baztertzen dira espresuki?



**2/2023 Legeak** erakundean edo hirugarrenetan eragin handiagoa duten egoerei buruzko informazioa ematen duten pertsonak bakarrik babesten ditu, legezko edo administrazioko garrantzirik ez duten gatazka pertsonalak alde batera utzita.

Ilido horretan, adibidez, bi langileren arteko lan-gatazka, baita kargu edo posizio desberdina dutenen artekoak ere, gatazka pertsonalengatik soilik gertatzen bada (elkarren arteko harreman txarra, lehiakortasuna, etab.), ez da jakinarazi beharko informaziorako barneko kanal honen bidez.




# 04

## Nork erabil dezake informaziorako barneko kanala?



**GMSM**ko edozein kidek, hau da, **erakundearekin harreman profesionala duten pertsona guztiek**, dela langile izateagatik, -lan erregimena edozein dela ere-, dela akziodun, zuzendari edo administrazio-organoko kide izateagatik, ustezko arau-hausteei buruzko informazioa eman dezakete barneko kanalaren bidez, zuzenean edo ordezkatuta.

Halaber, *ut supra* adierazitako arau-hausteen berri eman ahal izango dute kanal honen bidez **kanpoko hirugarrenek** zein autonomoek, enpresa hornitzaileek, kontratistek eta azpikontratistek (eta horien langileek), haien betekizunei eta prozedurari erabat lotuta.



# 05

## Nola jakinarazi daiteke ustezko arau-hauste bat?

Gure Sistemak eta Kanalak hainbat komunikabide eta modu aurreikusten dituzte, informatzaileak aukeran dituenak:



### Idatzizko komunikazioa

**GMSMk** horretarako prestatu duen helbide elektronikoaren bidez: **canal@gmsm.eus**



### Hitzezko komunikazioa

Telefono zenbaki honen bidez: **944 224 141** (Betetze Batzordeko lehendakariarengatik galdetuta).



### Aurrez aurreko edo bideokonferentzia bidezko bilera baten bidez

Horrez gain, informatzaileak hala nahi badu, **aurrez aurreko / bideokonferentzia bidezko** (MS Teams aplikazioa edo antzekoa) bilera eskatzeko aukera izango du, informazioa emateko.

Deskribatu berri diren bideek **GMSMko** informaziorako barneko kanalari egiten diote erreferentzia. Horrez gain, aldi baterako informatzaile guztiei gogorarazten zaie dokumentu honen 2. atalean deskribatutako ustezko arau-hausteak agintari publikoek kudeatutako informaziorako kanpoko kanalen bidez jakinarazteko aukera izango dutela, horiek sortzen direnean [1].

[1] Web-orrian adieraziko dira, sortzen direnean, kanpoko kanal erabilgarriak.

# 06

## Komunikazio anonimorik egin daiteke? Zer baldintza eskatzen dira balizko arau-hauste bati buruzko informazioaren komunikazioa egiteko?

Informatzaile orok aukeratu ahal izango du bere komunikazioa modu anonimoan edo ez-anonimoan egin nahi duen, bere aukerako zerbait baita. Nolanahi ere, adierazi behar da, Legean aurreikusitakoaren arabera, **GMSM**ko informaziorako barneko sistemak konfidentzialtasuna ez ezik, **informatzailearen nortasuna ez ezagutaraztea** ere bermatzen duela (2/2023 Legean adierazitako kasuetan izan ezik).

Bestalde, aurkeztutako informazioarekin lotutako jakinarazpenak jaso nahi dituen informatzaileak helbide elektroniko bat (edo beste komunikabide seguru bat) eman beharko du, eta jasotako jakinarazpenen edukiaren konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoa hartu beharko du.

Aukeratutako formula edo bidea edozein izanda ere (komunikazio anonimoa edo ez, idatziz, bileran, telefonoz...), **nahitaezkoa da informatzaileak jakinarazitako ustezko arau-hausteari buruzko ahalik eta datu gehien ematea, honako hauek bereziki:**

(I) Gertaeren oinarritzko deskribapena. *Ustezko zein arau-hauste egin ahal izan da eta nola?*

(II) Noiz egin zen edo gutxi gorabeherako datak. *Noiz gertatu zen arau-hauste hori?*

(III) Arau-haustea egin duten pertsona susmagarriak, arau-haustean parte hartu dutenak eta beste ezagutzaile batzuk. *Nork egin zuen arau-hauste hori/egiten lagundu zuten/tartean egon ziren?*

(IV) Ustezko arau-haustea berresteko edo argitzeko erabil daitezkeen dokumentuak, audioak, bideoak, datuak edo beste edozein informazio-iturri (paperean edo euskarri informatikoan). *Zer froga edo zantzu daude?*



# 07

## Jasotako informazioak kudeatzeko prozeduraren alderdi nagusiak

### 7.1. | Prozedura gidatzen duten printzipioak

- (i) Konfidentzialtasuna.
- (ii) Fede oneko informatzailea eta errepresaliarik ez jasateko duen eskubidea babestea.
- (iii) Datu pertsonalen babesa.
- (iv) Arau-haustek eragindako pertsonen eskubide eta interesak babestea.

### 7.2. | Prozeduraren faseak

#### I. FASEA

##### Jasotako informazioaren aurretiazko azterketa.

Organo arduraduna: Betetze Batzordeko lehendakaria [2].

#### II. FASEA

##### Komunikazioa onartzea edo ez onartzea.

Organo arduraduna: Betetze Batzordeko lehendakaria.

Erabaki bat hartzen da:

- (i) Komunikazioa izapidetzea onartzea eta ikerketa hastea (III. fasea).
- (ii) Komunikazioa ez onartzea, adibidez, kontatutako gertaerak:
  - ez badira arau-hauste.
  - egiantzarik ez badute.
  - emandako informazioak funtsik ez badu edo frogak edo froga-printzipioak legez kontra lortu izanaren arrazoizko zantzurik badago.
  - ez da informazio esanguratsu berririk aurkeztu dagoeneko jakinarazitako eta itxitako arau-hauste bati buruz.

[2] **Betetze Batzordea**, erakundearen Betetze Sistema gainbegiratzeko arduradun nagusia den aldetik, informazioaren barneko sistemaren arduradun izendatu dute, eta batzordeak bertako kide baten esku, batzordeko lehendakaria, utzi ditu informazio-kanala kudeatzeko eta ikerketa-espeditentek izapidetzeko gehienezko ahalmenak.

### III. FASEA

#### Ikerketa eta Azken Txostena.

Organo arduraduna: Betetze Batzordeko lehendakaria (guztiz gauzatzeko beste sail batzuei edo kanpoko aholkulariei eska diezazkiekeen kontsultei edo laguntza puntualari kalterik egin gabe) edo beste sail espezifiko batzuetara bideratu ahal izango du ikerketa hori egin dezaten (Ikertzailea).

- (i) Dagozkion ikerketa-eginbideak egiten dira (adibidez, eragindako/ikertutako pertsonen deklarazioa, lekukoak, etab.).
- (ii) Ikerketaren osteko azken txostena egitea. Bertan, honako hau proposatzen da:
  - Prozedurarekin jarraitzea (arau-haustearen arrazoizko zantzuak daudela uste da).
  - Laneko diziplinazko edo kontraesanezko espediente bat irekitzea (Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitakoarekin bat etorritik), Betetze Batzordeko lehendakariak/Ikertzaileak laneko arau-hauste baten zantzuak daudela uste badu (espedientea aurretik ireki denean izan ezik).
  - Prozedura artxibatzea.
    - Ez da arau-haustea.
    - Ez dago behar bezala justifikatuta egin izana
    - Ez da egile ezagunik egiaztatu

### IV. FASEA

#### Azken ebazpena.

Organo arduraduna: Eskuordetutako administrazio-organoa edo organoa (adibidez: Kudeaketako Zuzendaritza)

Aldez aurretik entzunaldia eman ahal izango zaie eragindako pertsonari.

Erabaki bat hartzen da:

- (i) Espedientea artxibatzea.
- (ii) Betetze Batzordeko lehendakariak/Ikertzaileak egindako proposamenen bat edo guztiak adostea.

# 08

## Amaitzen

Jarduera gauzatzean ustez egindako lege-arau-hausteen berri ematea eskubidea izateaz gain, gure profesionalen kasuan betebeharra ere bada.

Gainerakoan, Betetze Sistemaren edo compliancearen funtsezko elementua da, sistema hori osoa eta eraginkorra den edo alderdi batzuetan hobetu behar den egiaztatzeko adierazle bat.

Zalantzarik izanez gero, informatzaile orok informazio gehiago eskuratu dezake Betetze Batzordearengana zuzenduta.

